DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Finantzak
Ijentea, 1 | Tel. 900714033 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzarra
Junta de Gobierno Local
Ogasun batzordea
Comisión de Hacienda
2024/07/23
Zinegotzi idazkaria / Concejal-a secretario-a
Miren Nekane Arzallus Iturriza

UDALBATZARI

**Hondakinak biltzeko zerbitzua emateagatiko tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa.**

<u>1. 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, ekonomia zirkularrerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa</u>

Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak Espainiako zuzenbidean txertatzen du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 30eko 2018/851 Zuzentaraua, bi zuzentarau hauek aldatzen dituena: 2008/98/EE Zuzentaraua, hondakinei buruzkoa, eta 2019ko ekainaren 5eko 2019/904 Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, plastikozko produktu jakin batzuek ingurumenean duten eragina murrizteari buruzkoa.

Erregulazio horren alderdirik garrantzitsuenak honako hauek dira: tasa nahitaezkoa eta ez-defizitarioa da; sortutakoaren araberako ordainketaren terminologia sartzen du (*pay as you throw*); eta premisa horiek guztiak 2025eko apirilaren 10a baino lehen betetzera behartzen ditu udalak, orduan bihurtuko baita tasa hori nahitaezkoa.

Araudi horrekin lortu nahi den helburua da zabortegietan hondakin gutxiago metatzea eta gehiago birziklatzea eta berrerabiltzea.

Legeak arreikusten duenaren arabera, soilik ahalmen ekonomikoaren printzipio konstituzionalean oinarritutako hobariak emango dira, ez besterik; izan ere, helburua da bakoitzak sortzen duenaren arabera ordaintzea, eta beste mota bateko onurak emanda horren aurkako jokabideak susta daitezke.

Ordenantza fiskalak, gaur egun idatzita dagoen eran, salbuespen-kasu bat jasotzen du 7. artikuluan, eta hobari-kasu bat 9.1 artikuluan. Hauek dira artikuluak:

*7.1.art.- Salbuespenak : Etxeetako eta lokaletako hiri hondakinak bilketari dagokion tasa ez du ordaindu beharrik izango dena delako ondasun higiezina hiri hondakinak biltzeko puntutik 200 metro baino urrutiago duen subjektu pasiboak, ez eta 100 metro baino urrutiago duenak ere, baldin eta etxe edo lokalaren eta hiri hondakinak biltzeko puntuaren*

AL AYUNTAMIENTO PLENO

**Modificación de la Ordenanza fiscal reguladora de la Tasa por la prestación del Servicio de recogida de residuos.**

<u>1º Ley 7/2022 de 8 de Abril de residuos y suelos contaminados para una economía circular.</u>

La Ley 7/2022 de 8 de abril de residuos y suelos contaminados para una economía circular, incorpora al Derecho español la Directiva 2018/851 del Parlamento Europeo y del Consejo de 30 de mayo de 2018 por la que se modifica la Directiva 2008/98/CE sobre los residuos ,y la Directiva 2019/904 del Parlamento Europeo y del Consejo de 5 de junio de 2019 relativa a la reducción del impacto de determinados productos de plástico en el medio ambiente.

Los aspectos más relevantes de esta regulación son que la tasa se convierte en obligatoria, no deficitaria, introduce la terminología de pago por generación (pay as you throw), y que obliga a los Ayuntamientos a dar cumplimiento a todas estas premisas antes del 10 de abril de 2025 fecha en la que dicha tasa deviene obligatoria.

El objetivo que se quiere conseguir con esta normativa es la reducción de los depósitos en vertedero y alcanzar un mayor nivel de reciclaje y reutilización.

La ley prevé la concesión de bonificaciones basadas únicamente en el principio constitucional de capacidad económica, y no otros, ya que el objetivo es pagar por lo que cada uno genera y la concesión de otro tipo de beneficios podría fomentar conductas contrarias al mismo.

La Ordenanza fiscal, en su redacción actual recoge en el artículo 7 un supuesto de exención y en el artículo 9.1 un supuesto de bonificación, detallado a continuación:

*Art. 7.1.- Exenciones: Gozarán de exención en la modalidad de recogida de residuos de viviendas y de locales, los sujetos pasivos cuyos bienes inmuebles estén situados a una distancia superior a 200 m. del punto donde se presta el servicio, o cuyos inmuebles estén situados a una distancia superior a 100 metros y el desnivel acumulado en los diversos tramos del*

*arteko ibilbideko zati guztien artean metatutako desnibela %6 edo handiagoa bada.*

*recorrido, entre el edificio y el punto de recogida, es igual o mayor que un 6%.*

*9.1.art.- Hobariak: Etxeetako eta lokaletako hiri hondakinak bilketagatiko tasaren %50 gutxiago ordainduko du dena delako ondasun higiezina hiri hondakinak biltzeko puntutik 100 metro baino urrutiago duen subjektu pasiboak, baldin eta etxe edo lokalaren eta hiri hondakinak biltzeko puntuaren arteko ibilbideko zati guztien artean metatutako desnibela %3 edo handiagoa bada.*

*Art.9.1.- Bonificaciones: Gozarán de bonificación del 50% de la cuota, en la modalidad de recogida de residuos de viviendas y de locales, los sujetos pasivos cuyos bienes inmuebles estén situados a una distancia superior a 100 m. del punto donde se presta el servicio y exista un desnivel acumulado en los diversos tramos del recorrido entre el edificio y el punto de recogida, de al menos un 3%.*

Proposatzen da bi kasu horiek ezabatzea, apirilaren 8ko 7/2022 Legean jasotako araudiaren aurkakoak direnez gero, eta hurrengo artikuluak berriz zenbakitzea.

Se propone eliminar estos dos supuestos por ser contrarios a la normativa contemplada en la ley 7/2022 de 8 de abril y renumerar los artículos siguientes.

2º.- Ordenantza fiskalaren eranskina aldatzea

2º -Modificación del Anexo de la Ordenanza Fiscal

Hondakinak biltzeko zerbitzuaren kostuak aztertuta, 5.544.903,44ren defizita dagoela ikusten da.

El estudio de costes relativo al servicio de recogida de residuos arroja un déficit de 5.544.903,44€

Ekonomia zirkular baterako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak xedatzen duenez, derrigorrezkoa da tasa ez-defizitario bat onestea.

La ley 7/2022 de 8 de abril de residuos y suelos contaminados para una economía circular., recoge como obligatorio la aprobación de una tasa no deficitaria.

Sarrerak, hobariak eta salbuespenak kendu ondoren, eta zerbitzuaren kostuak kontuan hartuta, Udal Gobernuak proposatu du etxeko hondakinak biltzeko tasa % 26,54 igotzea, tarifa orekatzeko eta 7/2022 Legean aurreikusitako araudia

Teniendo en cuenta los ingresos ,una vez eliminadas las bonificaciones y exenciones, y los costes del servicio–el Gobierno Municipal propone para la recogida de residuos domiciliarios un incremento de la tasa del 26,54%, con el objeto de equilibrar la tarifa y cumplir con la normativa contemplada en la Ley 7/2022.

Etxeko zaborraren zerga-kuota kuota finkoaren (zenbateko osoaren %65) eta kuota aldakorraren (guztizkoaren %35) baturak osatzen du.

La cuota tributaria de la basura doméstica está conformada por la suma de la cuota fija (65% del importe total) y de la cuota variable (35% del total).

Datu gisa etxebizitza-kopurua (90.123) hartuta, kuota finkoa honako hau da:

Tomando como dato el número de viviendas (90.123), la cuota fija es la siguiente:

18.855.645,51€ x 65% 12.257.138,14 €

18.855.645,51€ x 65% 12.257.138,14 €

- Etxebizitzaz Kuota finkoa: 12.257.138,14 €/ 90.123 etxeb = 135,99€/etxebizitzaz

Cuota fija por vivienda : 12.257.138,14 €/ 90.123 vivi = 135,99€/viv

Datu gisa iaz kontsumitutako 8.696.440m$^3$ metro kubikoak hartuta, kuota aldakorra honako hau da:

Tomando como dato el número de metros cúbicos consumidos del pasado año 8.696.440 m$^3$, la cuota variable es la siguiente:

18.855.645,51€ x 35%=6.599.475,93€

18.855.645,51€ x 35%=6.599.475,93€

Kuota aldakorra:
6.599.997,46€/8.696.440-m$^3$=0,7589€/ m$^3$

Cuota variable:
6.599.997,46€/8.696.440-m$^3$=0,7589€/ m$^3$

Batez besteko guztizko kontsumoa 93 m$^3$ da.

El consumo medio total se fija en 93 m$^3$

Bestalde, eta aurrez aipatutako defizita kontuan hartuta, jardueren zabor-tasaren oinarrizko kuota eta hondakin sortzaile handien tasak %26,54 igotzea proposatzen da.

Por otro lado, y a la vista del déficit señalado previamente, se propone un incremento del 26,54% de la Cuota Base de la tasa de residuos de actividades, y de las tasas de grandes generadores.

Gipuzkoako toki-ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 24. artikulua (tasen zenbateko zenbatetsiaren guztizko mugari buruzkoa) aintzat hartuta, administrazio-espedientean jasota daude udal honek eman beharreko zerbitzuen kostuei buruzko txosten tekniko-ekonomikoak.

En relación con lo dispuesto en el art. 24 de la Norma Foral 11/1989 de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, sobre el límite total del importe estimado de las tasas, constan en el expediente administrativo los informes técnico-económicos sobre los costes de los servicios a prestar por este Ayuntamiento.

3º.- Ur-kontsumoa zenbatzeko aldia:

3º- Período de cómputo de consumo de agua:

Egungo ordenantzaren 11.1.2 artikuluan, irakurketaren ekitaldi-eredua (IEE) ateratzeko orduan, aurreko urteko ekainaren 31ra bitartean fakturatutako lau hiruhilekoen kontsumoa hartzen da ur-kontsumotzat.

En la actual ordenanza, el artículo 11.1.2 establece que a efectos de cálculo, el ejercicio tipo de lectura (ETL) se considerará como consumo de agua, el consumo de los últimos cuatros trimestres facturados hasta el 31 de junio del año anterior.

Ordenantza hau izapidetzeko egutegiaren arabera, Gobernu Batzarrak uztaileko azken egunetan onetsi behar du aldaketa, eta Udalbatzak iraileko osoko bilkuran. Horrek esan nahi du abuztuan egin behar direla zuzenketak aurkezteko eta txostenak egiteko izapideak.

El calendario de tramitación de esta ordenanza sitúa la aprobación por Junta de Gobierno en los últimos días de julio y el Pleno de aprobación inicial en el Pleno de Septiembre, lo que supone que todos los tramites relacionados con la presentación de enmiendas y realización de informes se tienen que realizar en el mes de agosto.

Proposatzen da 11.1.2 artikuluan egiten den erreferentzia aldatzea eta idazketa berrian abenduraren 31ra arte fakturatutako lau hiruhileko jartzea.

Se propone modificar el artículo 11.1.2 por lo que la nueva redacción haga referencia a cuatro trimestres facturados hasta el 31 de diciembre del año anterior.

Aurreko guztia oinarri hartuta, eta Finantza Zuzendaritzak proposatuta, PERTSONAK, EKONOMIA ETA AURREKONTUA KUDEATZEKO ZINEGOTZI ORDEZKARIAK, Udalbatzari proposatzen dio, Ogasun Batzordearen txostena jaso ondoren, honako **ERABAKI** hauek har ditzala:

En base a cuanto antecede, y a propuesta de la Dirección Financiera, EL CONCEJAL DELEGADO DE PERSONAS, GESTIÓN ECONÓMICA Y PRESUPUESTARIA, propone al Ayuntamiento Pleno que, previo informe de la Comisión de Hacienda adopte los siguientes **ACUERDOS**:

**LEHENA:** Azalpen-zatiaren lehenengo puntuan azaldutakoaren arabera Hondakinak biltzeko zerbitzua emateagatiko tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren 7. eta 9.1 artikuluak ezabatzea, eta ondorengoko artikuluak berriz zenbakitzea.

**PRIMERO:** Aprobar la supresión de los artículos 7 y 9.1 de la Ordenanza Fiscal reguladora de la Tasa por la prestación del Servicio de Recogida de residuos, de conformidad con lo expuesto en el punto primero de la parte expositiva, y renumerar los artículos siguientes.

**BIGARRENA:** Hondakinak biltzeko zerbitzua emateagatiko tasa, arautzen duen Zerga Ordenantzaren eranskinean aldaketa onartzea; bigarren azalpen zatian adierazitako aldaketa, alegia.

**SEGUNDO:** Aprobar la modificación del Anexo a la Ordenanza Fiscal reguladora de la Tasa por la prestación del Servicio de Recogida de Residuos, descrita en el punto segundo de la parte expositiva.

**HIRUGARRENA:** Hondakinak biltzeko zerbitzua emateagatiko tasa, arautzen duen Zerga Ordenantzaren 11.1.2 artikuluaren aldaketa onartzea, hirugarren azalpen zatian adierazitako aldaketa alegia

**TERCERO:** Aprobar la modificación del artículo 11.1.2 de la Ordenanza Fiscal reguladora de la Tasa por la prestación del Servicio de Recogida de residuos de conformidad con lo expuesto en el punto tercero de la parte expositiva.

**LAUGARRENA**: Indarrean 2025eko urtarrilaren 1etan sartuko den erabaki hau izapidetzea, Gipuzkoako toki-ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutako prozeduraren arabera. Erabaki hau, behin-behinekoa, behin betikotzat joko bihurtuko da, erreklamaziorik aurkezten ez bada.

**CUARTO**: Tramitar este acuerdo a regir desde el 1 de enero del año 2025, conforme al procedimiento establecido en el art. 16 de la Norma Foral 11/1.989 de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, entendiendo que los mismos, de carácter provisional, devienen definitivos si no se presentan reclamaciones.

Donostian, sinadurako datan

En San Sebastián, a fecha de la firma

ZERGAK KUDEATZEKO ETA IKUSKATZEKO ATALAREN BURUA

Izpta./Fdo. Loreto Sola Antoñanzas

PERTSONAK, EKONOMIA ETA AURREKONTUA KUDEATZEKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA

Izpta/Fdo. Kerman Orbegozo Uribe

FINANTZA ZUZENDARIA

Izpta./Fdo. Zigor Eguia Lejardi

Kontuhartzailetza eta Kontabilitatea
Intervención y Contabilidad
Erreferentzia
Referencia
Ikusia
Visto